



Euskal zinemaren presentzia handiagoa izango da Zinemaldian eskainiko zaion sail berriari esker

**Zinemira-Euskal Zinemaren Panoraman bederatz
film izango dira ikusgai, horietatik sei estreinaldiak**

Imanol Uribek Zinemira saria jasoko du Euskal Zinemaren galan

Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama izango da gehienbat euskaldunek ekoitziriko edo euskaldunek eginiko zinemari Donostia Zinemaldian presentzia handiagoa emango dion atal berriaren izena. Orain arte Euskal Zinemaren Egunak hitzordu zehatz bat eskaintzen zuten eta film bakoitzaren pase bakarra egiten zen. Hemendik aurrera, zabaldu egingo da eta Zinemaldiaren beste sail bat gehiago izango da, urteko uztaren emaitza nabarmenen artean aukeraturiko filmak bilduko dituena.

Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama Donostia Zinemaldiak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak antolatu dute, EiTbren babesletzarekin eta Ibaia eta APV ekoizpen etxeen elkarteekin laguntzarekin. Saila Zinemaldiaren programazio orokorraren barruan bilduko da eta edizio osoan zehar eskainiko da. Estreinatuko diren sei filmak hiru aldiz emango dira, eta dagoeneko zinema komertzialetan estreinatu direnak bi aldiz.

Gainera, Zinemiraren programazioak Kimuak 2009ko katalogo berriaren lehenengo proiektzioa ere izango du, urteko euskal film labur onenen aukeraketa biltzen duena. Kimuak Eusko Jaurlaritzaren programa da eta Euskadiko Filmategiak kudeatzen du. Haren helburua euskal film laburrak sustatzea eta munduan zabaltzea da. Proiektzio hori profesionalentzat baino ez da izango.

Euskal Zinemaren gala eta Zinemira Saria

Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama sailaren programazioaren barruan sartzen da eta asteazkena 23an Victoria Eugenia antzokian ospatuko da Euskal Zinemaren gala. Patxo Telleriak eta Aitor Mazok zuzenduriko *La máquina de pintar nubes* izango da galan estreinatuko den lana. Filmean, bestalde, Aitor Mazo, Gracia Olayo, Bingen Elortza, Lander Otaola eta Santi Ugaldeizangok parte hartuko dute.

Imanol Uribe zuzendariak Zinemira Saria jasoko du datorren edizioan Victoria Eugenia antzokian egingo den Euskal Zinemaren galan. Sari horrek, euskal zineman garrantzia izan duten artisten ibilbidea nabarmentzen du.

Imanol Uribe (San Salvador, 1950) euskal zinemak 70ko hamarkadaren amaieran izan zuen gorakada garaian ezagutu genuen zuzendari garrantzitsuenetako bat da. Zuzendari lanez gain, gidolari eta ekoizle gisa ere aritua da. *El proceso de Burgos* (*Burgosko prozesua*, 1979) lanarekin, jada, Gaztelaniako Film Onenaren Kantauriko Bitxia saria jaso zuen Donostia Zinemaldian. Garaiko egoera politikoarekin loturiko *La fuga de Segovia* (*Segociako Ihesa*, 1981) eta *La muerte de Mikel* (*Mikelen heriotza*) lanen ondoren beste genero batzuk landu ditu eta Espainiako zinema garaikidearen izenburu nabarmenenetako batzuk eskaini dizkigu: *Adiós pequeña* (1986), *El rey pasmado* (1991), biek Donostia Zinemaldiaren Urrezko Maskorra irabazi zuen, *Días contados* (1994) eta *Bwana* (1996), edo *Plenilunio* (1999) eta *La carta esférica* (2007) idazlanen egokitzapenak.

Antolatzaileak



Babeslea



Laguntzaileak



57 FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIA ZINEMALDIA
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL 18 | 26 IRAILA SEPTIEMBRE 2009

ZINEMIRA
EUSKAL ZINEMAREN PANORAMA



ESTREINALDIAK

LA MÁQUINA DE PINTAR NUBES (Lainoak margotzeko makina), Patxo Tellería, Aitor Mazo

ITSASOAREN ALABA , Josu Martínez

LIFE AND FILM (THE LABYRINTHINE BIOGRAPHIES OF VOJTECH JASNY) (Zinema eta bizitza (Vojtech Jasnyren biografia labirintikoak)), Arkaitz Basterra

ROUGH WINDS , Andrea Olabarria

UMURAGE , Gorka Gamarra

ZUZENDU, MESEDEZI! , Juan Miguel Gutiérrez

URTEKO EKOIZPENAK

ANDER , Roberto Castón

CHECKPOINT ROCK , Fermín Muguruza, Javier Corcuera

SUKALDE KONTUAK , Aizpea Goenaga



ESTREINALDIAK

LA MÁQUINA DE PINTAR NUBES

(Lainoak margotzeko makina)

Zuzendaria: Patxo Tellería, Aitor Mazo • **Gidoia:** Patxo Tellería, Aitor Mazo • **Argazkia:** Gaizka Bourgeaud • **Antzezleak:** Aitor Mazo, Gracia Olayo, Bingen Elortza, Lander Otaola, Santi Ugalde
Iraupena: 102 m.

Francoren diktaduraren azken urte ilunetan, Bilboko langile auzune bateko testuinguru gogorrean, pinturarekiko pasioa aurkitzen duen nerabe baten iniazio bidaia kontatuko digu. Edertasunaren eta artearen aurkakoa den testuinguru horretan, denbora librean margotzen aritzen den burdindegiko langile talde bat ezagutuko digu. Artearekiko maitasunak bultzatuta margotzen duten afizionatuak dira. Opera prima.

(EUSKAL ZINEMAREN GALA)

ITSASOAREN ALABA

Zuzendaria: Josu Martínez • **Gidoia:** Josu Martínez • **Argazkia:** Hibaí Castro
Iraupena: 52 m.

Haizek bi urte bete baino lehen GAL taldeak haren aita hil zuen, Mikel Goikoetxea, "Txapela" errefuxiatua. Aitaren oroitzapenik txikiena ez badu ere, 25 urte geroago galdezka hasiko da. *Itsasoaren alaba* memoria ariketa baten lekukotza da. Goikoetxea ezagutu zutenen testigantzak lotuta, Haizek aita eta garai hartako egoera nolakoak ziren jakingo du pixkanaka, eta mundu eta sentsazio ezberdinak nahastuko zaizkio. Opera prima.

LIFE AND FILM (THE LABYRINTHINE BIOGRAPHIES OF VOJTECH JASNY)

(Zinema eta bizitza (Vojtech Jasnyren biografia labirintikoak))

Zuzendaria: Arkaitz Basterra • **Gidoia:** Arkaitz Basterra • **Argazkia:** Arkaitz Basterra
Iraupena: 79 m.

Hirurogeiko hamarkadan Europako zinemagile ospetsuenetako bat izan ondoren, Vojtech Jasny (Txekiar Errepublika, 1925), New Yorkeko apartamentu txiki batean bizi da gaur. Jasnyrentzat bizitza eta zinema bereizi ezin diren bi kontzeptu dira. *Life and Film* lanean, oraindik bizirik dauden lagunei eginiko bisiten bitartez, lehengo pertsonan bere historia eta zenbait kapitulu erabakigarri kontatuko dizkigu: Nazien inbasioa Txekoslovakian, sobietarren inbasioa, ondorengo erbesteratzea eta New Yorkera iritsi zenekoa. *Agian / Maybe* lanaren zuzendariarena.

ROUGH WINDS

Zuzendaria: Andrea Olabarria • **Gidoia:** Andrea Olabarria, Doug Klozner • **Argazkia:** Matt Greene • **Antzezleak:** Danna Maret, John Iovino, Jessica Brydon, Albert Campillo
Iraupena: 110 m.

Hiru neraberen bizitzak degeneratzen ari dira auzo lasai batean ezkutatuta. Bere buruaz beste egiteko saiakera baten ondoren ozta-ozta bizirik atera den Jessek sekretu suntsitzaile bat du. Connor boxeolari profesionala izateko entrenatzen ari da, baina iraganean izan zuen sexu abentura batek ez dio lasai egoten uzten. Eta inoiz mutil-lagunik izan ez duen Annek maitasun obsesibo bat dauka orain. Une jakin batean, sekretu guztiak egoera kritiko batera iritsiko dira eta haien bizitzak betiko aldatuko dira. AEBetako ekoizpena eta Andrea Olabarria donostiarraren opera prima.



UMURAGE

Zuzendaria: Gorka Gamarra

Laguntzaileak: Jean Marie Mbarushimana, Sonia Rolley

Gidoia: Gorka Gamarra, Sonia Rolley, Jean Marie Mbarushimana, Puri Ramírez

Iraupena: 52 m.

Ruanda guztiz suntsituta geratu zen lau gerra urteren (1990-1994) eta gero etorri zen genozidioaren ondoren. 1994an, ehun eguneko tartean, milioi bat pertsona inguru hil zituzten. Genozidioan parte hartu zutenak 2005eko abuztuan askatu zituzten; ondorioz, bizirik atera zirenen eta borraroen arrastoa jarraitu ahal izan dugu 1994tik gaur arte, adiskidetze-prozesuaren labirintoan barrena.

ZUZENDU, MESEDEZ!

Zuzendaria: Juan Miguel Gutiérrez

Iraupena: 68 m.

Juanjo Franco Zabalegi Donostian hil zen 2008ko ekainaren 19an. Dokumental honek haren bizitzaren eta sorkuntza prozesuaren gakoak erakutsi nahi dizkigu. Familiakoek, lagunek, ikasleek, laneko eta aisialdiko kideek, beren oroitzapenen bitartez Juanjoren zinemagile, margolari eta irakasle jarduera zabalera hurbilduko gaituzte, eta ezagutzen ez ditugun beste hainbat alderdi ere ezagutaraziko dizkigute. *Tabula rasa* (2004) eta *Motema na ngai* (2008) lanen zuzendariarena. Saioan Juanjo Francoren *Nere Erria* (1968) film laburra ere proiektatuko da.



URTEKO EKOIZPENAK

ANDER

Zuzendaria: Roberto Castón · **Gidoia:** Roberto Castón · **Argazkia:** Kike López · **Antzezleak:** Josean Bengoetxea, Cristian Esquivel, Leire Ucha, Mamen Rivera, Paco Revueltas
Iraupena: 128 m.

Ander berrogei urte inguruko baserritarrak gorabehera handirik gabeko bizitza darama bizikleta fabrika bateko langile gisa. Baserrian bizi da ama eta arrebarekin eta hango lanez ere arduratzen da. Egun batean istripu bat izango du, eta ondorioz, hanka hautsiko du. Orduan, José izeneko immigrante perutar bat kontratatzea erabakiko du familiak. Joséren etorrerak Anderren bizitza aldatuko du, sentimendu berriak sortuko baitzaizkio, inoiz lehenago izan ez zituenak, eta horrek barne-gatazka izugarria eragingo dio. Opera Prima. Berlingo zinema jaialdiko Panorama sailean aurkeztua.

CHECKPOINT ROCK

Zuzendaria: Fermín Muguruza, Javier Corcuera · **Gidoia:** Fermín Muguruza, Javier Corcuera · **Argazkia:** Jordi Abusada
Iraupena: 70 m.

Tel Aviveko publizitate iragarki eta neoietatik Zisjordaniako eta Gazako eremu okupatuaren pobrezia eta itzaropenik ezera, *Checkpoint Rock* herriz herri eta checkpointez checkpoint elkarren artean oso desberdinak diren musikariengana hurbilduko da. Gatazkan murgilduta dagoen herri horri buruzko ikuspegia aldatuko duen ibilbidea.

SUKALDE KONTUAK

Zuzendaria: Aizpea Goenaga · **Gidoia:** Aizpea Goenaga · **Argazkia:** Javier Aguirre · **Antzezleak:** Isidoro Fernández, Bárbara Goenaga, Mikel Losada, Aitziber Garmendia, Galder Pérez
Iraupena: 89 m.

Sukaldaritzaren eskolan negar batean aurkituko ditugu (txikitutako tipularen ondorioz) etorkizunean sukaldari izango diren azken urteko sei ikasle. Irakaslea sukaldeko kultura ikasteko interes handirik ez duen alfer koadrila aurrera ateratzen saiatuko da, baina beste lan bat ere izango du gaixoak: sukaldean dagoen usain nazkagarria nondik datorren aurkitzea.



KIMUAK 2009

(PROFESIONALENTZAKO BAKARRIK DEN EMANALDIA)

5 RECUERDOS

Oriana Alcaine / Alejandra Márquez. (12min)

AHATE PASA

Koldo Almandoz. (12min)

AMONA PUTZI!

Telmo Esnal. (9min)

DIRTY MARTINI

Iban del Campo (24min)

ÉL NUNCA LO HARÍA

Anartz Zuazua (15min)

LOS QUE LLORAN SOLOS

David González (6min)

MARISA

Nacho Vigalondo (3min)

LA PRESA

Jorge Rivero (16min)